

# **STARTINNOVA 5**

## **5. KANALAK**

Gure enpresa daukan merkatu segmentu nagusia gurasoak dira, hauek gure produktuarekin bilatzen dutena erabilgarritasuna da, hau da, gure iragarki kanal guztiengatik erabilgarritasuna salduko dugu, kanal gehienetan bideo motz bat baten bidez erakutsiko dugu gure produktuen ezaugarri nagusia, nola gure produktuarekin erraztasunekin jostailu guztiak biltzen dira. Guk erakutsi nahi duguna da zure seme-alabekin jostailuak batzeagatik daukazun eztabaida gehienak, gure produktuari esker konpontzen dira.

Horregatik, gure bideotan adieraziko dugu ume bat bere gurasoekin eztabaidan, bere jostailuak ez duelako batzen, baina gure produktua agertzean jostailu hauek erraztasunekin batuko dira. Horregatik gure bezero segmentua ikustean produktua nahi izango dute, bere umeak uzten dituen jostailuak eztabaidarik gabe batzeko.

Gure enpresak hainbat modu izango ditu bere produktua ezagutarazteko eta bezeroarengana ahalik eta hurbilen iristeko. Urrats hori oso garrantzitsua da, oso beharrezkoa baita gure bezeroekin harreman estua izatea. Horretarako, jarraian ikus daitekeen zerrenda erabiliko dugu. Zerrenda horren barruan, produktua nahi dugun bezero-segmentura helarazteko hainbat modu ikus daitezke, bai iragarki gisa, bai adin guztietarako egokiak diren sare sozialen mota desberdinak, gurasoek zein haurrek gure jostailuak ezagutu ahal izan ditzaten.

- Web orrialde bat sortzea
- Iragarki bat jarriko dugu telebistan
- Tik tok kontu bat sortzea
- Publizitate-posterra (markesina)
- Twitter kontu bat egitea
- Instagram kontu bat
- Iragarki bat jarriko dugu youtube, twitch eta halako plataformetan

Lehenengo, gure enpresaren funtsezko gisa web-orri bat sortuko dugu, non gure ideien eta enpresaren berri emateaz gain, web orri honen bidez interesa duten bezeroek gure produktuak erosi ahal izango dituzten. Sortzea helburu dugun iragarki eta sare sozial guztien helburua web orrira zuzenduta egongo da beti. Sare sozial guztiek harreman zuzena izango dute webgunearekin, informaziorako zein salmentarako kanal nagusia delako.

Web orriaren garrantzia azaldu ondoren, sortzen ditugun iragarkiak telebistan ateratzeko asmoa ere badugu. Beti funtzionatzen du; izan ere, iragarki erakargarriak egiten ditugunean, bai haurrentzat, bai gurasoentzat, gure produktuak erosiagoak eta ezagunagoak egiten ditugu. Gure helburua da iragarki bikainak batez ere bazkaldu ondoren eta askaria egiteko orduan ateratzea, umeak eskolatik itzultzen direlako eta telebista ikusteko tarte bat dutelako. Halaber, gustatuko litzaiguke zenbat eta gehiago hurbildu Gabonak eta uda bezalako datak, orduan eta gehiago agertzea gure iragarkiak, mota horretako egunetarako ezin hobekak baitira jostailuak.

Azkenik, gure iragarkiak haurrentzako telebista-kanaletan agertzea nahi dugu, haiek gehien ikusten dituzten kanalak direlako. Horrela, errazago eta azkarrago aurkituko gaituzte. Lortu genituen diru-laguntzen eta maileguen zati bat ahalbidetuko du iragarkiak telebistan jartzea.

Horretaz gain, guk tik tok kontu bat sortuko dugu. Egia da hau urte batzuk atzera ez zela sare sozial garrantzitsu edo ospetsu bat, baina azken urteetan sare sozial hau goraiatu egin da beste sare sozialen aurrean. Sare sozial honetan bezeroentzat erakargarriak eta adiktiboak diren bideo laburrak argitaratu daitezke. Bideoak ausaz ateratzen dira algoritmo baten bidez bakoitzaren kontuan, eta horrek aukera gehiago ematen digu geure burua ezagutarazteko.

Horregatik erabaki dugu hemen iragartzea gure produktua, gainera beste onura bat da hau dohainik dela, hau da, ez duzu ezer ordaindu behar hemen zure produktuen inguruko bideoak argitaratzeko, eta gero erakarrirako bezeroak gure web orrialdedari bideratuko diegu, hemen gure produktua erosteko ahalmena izateko. Horretaz gain, zalantzak argitu eta gure jostailuetan interesa duten bezeroekin hitz egin dezakegu.

Beste aldetik, publizitate-posterra markesina moduan jarriko dugu. Publizitate-posterra markesinetan, metodo oso on bat da pertsona mota ezberdinetarako ailegatzeko. Adibidez, autobusa geltokian dagoen poster bat mundu guztia ikusten du, adin guztietako pertsonen hartu ahal dutelako autobusa. Beste moduan, posterra deigarria da eta marketin estrategia ederra da. Posterra arreta deitzen ez badu ez du jendearen ikusnahia deituko. Kolore-paleta aztertuta eta ondo aukeratuta egon behar da eta, modu berean, tipografia deigarria izan behar da. Ez da berdina produktu baten izena ARIAL tipografiarekin idaztea, IMPACT tipografiarekin baino. Eta amaitzeko, web orrialdea bilaketa errazteko, QR kode bat aplikatuko dugu poster berean.

Zerrendan agertzen den bezala, gure ideia eta produktua Twitter sare sozialaren bidez helarazteko beste modu bat da. Sare sozial hau munduko ezagunenetakoa eta erabilienetakoa da gaur egun. Guk twitterreko kontu bat sortuko dugu, non gure enpresaren eta produktuaren deskribapen txiki bat agertuko den, jendeak nor garen jakin dezan. Era berean, gure produktuen edo sustapenen berri emango dugu, jendeak azkar jakin dezan.

Sare sozial honen beste ezaugarri bat jendearen artean elkarreragitea da, eta hori primeran datorkigu interesa duten bezeroek produktuari buruz edo, oro har, enpresari buruz dituzten zalantzak erantzuteko.

Goian aipatzen dugun bezala instagram kontu bat sortuko dugu, gure enpresaren informazioa askoz ere modu bisual eta zuzenagoan erakutsi ahal izango dugu, gure erosleengana iristea errazagoa izan dadin, horrela, saltzailearen (kasu honetan, gu) eta eroslearen arteko harremana askoz ere afektiboagoa izango da, eta erosle interesatu gehiago erakarri ahal izango ditugu. Gainera, gaur egun oso pertsona gutxik ez dute instagram-konturik, eta, horrela, bezero kopuru oso handiarengana iristea ere lortzen dugu, gure produktua ahalik eta ondoen ezagutarazteko. Plataforma honekin oso erraza da bezeroekin harremanetan egotea.

Instagram kontu hori @Magne\_Jostailuak\_BDM izena izango du.

Telebistan iragarkiak jartzeaz gain, jendeak gehien erabiltzen dituen plataformetan iragarkiak jarriko ditugu, hala nola streaming "Twitch" plataforman, "YouTube"-n... edo "Instagram", "Facebook" eta antzeko plataformetan. Plataforma horietakoren bat, mundu guztiak erabiltzen du, batez ere jende gaztea, oso gutxitan ez du inork erabiltzen, horrexegaitik, gure diruaren

zati bat plataforma horietan iragarkiak jartzeko inbertitzea erabaki dugu, eta iragarkian klik eginda, zuzenean gure webgunera eramango dugu. Plataforma horietako iragarkiak askotan ateratzen dira, beraientzako sarrera-iturrietako bat direlako; horregatik, gure iragarkiak ere jarri nahi ditugu plataforma horietan.